

Irakasleak: Mertxe Jimeno eta Begoña Barriola

Nazaret Zentroa

Batxilergoa

Ideiaaren izena: “Urania”

“GUSTUKOA DUGU KOSMODISEAN GURE IDEIEKIN ETA TRESNA BERRIAK ARAKATUZ PARTE HARTZEA”

“Urania”, Batxilergoko ideia irabazlea, Donostiako Nazaret Zentroaren proposamena da, eta urrutiko planeta batean hiri ideal bat nola izan daitekeen hausnartzeko gonbitea egiten du, edozein motatako oztoporik gabea, indarkeriarik gabea eta ingurunearekin harmonian.

“Nzodisea”tik, Mertxe Jimeno eta Begoña Barriola irakasleek gidatutako Nazaret Zentroko bederatzi ikasleko taldeak “Urania” aurkeztu du eta, azaldu dutenez, *“Fisikako gure irakaslearen eraginak”* bultzatu ditu parte hartzera Kosmodisean, *“lehiaketan parte hartzera gonbidatu gintuen eta oso ondo hitz egin zigun hartaz. Zentroak aurreko urtean parte hartu zuen, eta sortutako giroa oso ona izan zen. Aurten, proposatu zigunean, ez genuen luze pentsatu eta murgildu egin ginen”*.



- Nola hautatu zenuten irabazle ateratako ideia?

- *Gure ideia-parrastada egin genuen eta hortik atera ziren interesgarrien ikusi genituen ideiak; azkenik, eztabaida txiki baten ondoren, hau aukeratu genuen.*

- Laburbilduz, zertan datza aurkeztu duzuen ideia?

- *“Urania” urrutiko planeta batean dagoen hiria da, bertan ez dago inongo oztoporik, gure ingurunearekin bizi gara, eta beste kulturen begirunea da elkarren arteko ohiko jarrera.*

“Nzodisea” taldea osatzen duten ikasleek adierazi dutenez, haien iritziz, Kosmodisea proposamenaren interesgarriena zen *“lagun eta ikaskideekin batera, horrelako lehiaketa txundigarrian geure ideiekin parte hartzea. Gure iritziz, taldean lan egiten ikasteko era bat da, eta guztiok elkarrekin lankidetzan aritu eta tresna berriak aztertzea. Espero dugu teknologia berrien bidez jokatzu ikasiko dugula eta, batez ere, ilusioz eta irrikaz parte hartuko dugula”.*

Gainera, gehitu dutenez, *“lehiaketak gure kabuz sortzeko aukera ematen digu, gure ekimena eta irudimena askatzeko. Hausnarketarako abiapuntu izateko balio digu. Geure buruari lehiaketako ardatz nagusia hautatzeko aukera ematea erronka izan da guretzat, bilatzen baitu, gure taldea ez ezik, parte hartzen dugun guztiak inplikatzeko gaituen gai bat.*

